## OLEŔKI-I

# Gau argija

### ABESTIJA

Lotaziĺa'ko gaba,
Neguko bijotzan.
Mendijetan eduŕa;
bian, leya ta otza.
Artaldijak batuta
ateŕpe zaŕ baten,
artzañak erdi-lotan
su onduan berotzen.

Bat batez eresija,
ta abesti gozuak.
Ludijan eztira entzun
aretarikuak.
Artzañak arin duaz
urtetan atera.
Dana argija dakuse
eguna bezela.

Donokitaŕ gotzonak
ego zuridunak,
abesten samuŕkiro
gora, bera, egazka.
"Aintza Jaungoikua'ri
donoki goyetan,
baĺa gentzea bian
gixon apalantzat."

"Jainkua'ren semia
jayo da Belen'en.
Ikeŕtzera len bai len
danok juan zaĺeze."
"Ortzian dakusuben
ixaŕ argijena,
zuben auŕian dua.
Bera jaŕaĺu ba."

Ixaŕa korta baten
ganian lotu da.
Artzañak baŕuraño
danak saŕtu dira.
Bertan askatxu baten
lastoen ganian
ume txikija egiñik
dago Jaungoikua.

Artzañak guŕtzen dabe
belaunbikaturik
Seña'k baŕe eĺen dautse
besuak zabalik.
Amak, Semia aŕtuta
artzain zaŕ bateri,
samuŕkiro eĺen dautso
besuetan itxi.

Pozaren pozaz negaŕ
ein dau agureak
oin txiki zuri baten
onei mosu emonda.
Gotzonak bitaŕtian
atetik begira,
orixe, eurek pozaŕen
egingo leukela.

Baña zorijon ori
ezta gotzonentzat;
gixonentzako egin da
gixona Jainkua.
¡Maĺe-maĺe zaĺugu
Sein jayopaŕija!
Zu, geuria ba zara
¡gu beti zeuriak!

UTAŔSUS.